



M<sup>a</sup> VICTORIA JOARISTI OLARIAGA  
ANDREA, OIARTZUNGO UDAL  
AGURGARRIAREN IDAZKARI  
NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 1ean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

**“OIARTZUNGO ELIZALDE AUZOKO HAINBAT ZONALDETAN IRISGARRITASUNA BETETZEKO ESPALOI, ZEBRA BIDE ETA OINEZKOEN PASOEN ERREFORMA PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN BEHIN BEHINGO ESLEIPENA BEHIN BETIKO BIHURTZEA.**

2009ko martxoaren 10ean Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, “Oiartzungo Elizalde auzoko hainbat zonaldetan irisgarritasuna betetzeko espaloi, zebra bide eta oinezkoen pasoen erreforma proiektua” obrak behin behingo izaeraz Construcciones Alzola S.A.ri esleitzea erabaki zuen, jendaurrean ezagutzera eman gabeko prozedura bidez.

Construcciones Alzola S.A. enpresak, aurkeztu ditu aurkeztu beharreko dokumentu eta ziurtagiriak eta behin-betiko bermea jarri du horretarako eman zitzaion epean, eta ondorioz, Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenarekin adostasunean, aho batez, “Oiartzungo Elizalde auzoko hainbat zonaldetan irisgarritasuna betetzeko espaloi, zebra bide eta oinezkoen pasoen erreforma proiektua” obrak behin-betikoz Construcciones Alzola S.A. (NIF A-20035671) enpresari esleitzea erabaki da. Kontratuaren prezioa 65.063,75 €koa da (BEZ kanpo). BEZa 10.410,20 €koa da. Beraz, kontratuaren prezioa guztira 75.473,95 €koa da.

Bestalde, egikaritze epea 3 astekoa da eta obran 6 pertsona okupatuko ditu, 3 enpresan integratutakoak eta 3 kontratazio berrikoak.

Halaber, proposamenak aurkeztu baina esleituak gertatu ez diren enpresei, proposamenarekin batera aurkeztutako behin behingo abalak itzultzea erabaki da, kasu honetan ondorengo enpresei:

- Bidasoro S.L.
- Asfaltos Orsa S.L.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta bederatziko apirilaren batean.

